

## 297/2010 DEKRETUA

EUSKARAREN JAKITE MAILA EGIAZTATZEN DUTEN TITULU ETA ZIURTAGIRIAK BALIOKIDETZEKO ETA EUROPAKO ERREFERENTZI MARKO BATERATUKO MAILEKIN PAREKATZEKO DEKRETUA.

Herrizaingo Sailak, Hezkuntza, Unibertsitate eta ikerketa Sailak, Justizia eta Herri administrazio Sailak eta Kultura Sailak 2010eko azaroaren 15ean EHAA n argitaratu dute dekretu hau.

Oso garrantzitsua da dekretu honetan aipatzen diren baliokidetzak zeintzuk diren jakitea, baina, batez ere, nahi dugu 1. Hizkuntza-eskakizuna duten guztiek, kontutan izan dezatela dekretu horretako bigarren xedapen iraunkorrean aipatzen dena.

Xedapen horrek honako hau dio: *Balio mugagabea izango dute 2008ko apirilaren 16an indarrean zeuden 1. Hizkuntza-eskakizunaren egiaztapenak, Euskal Autonomi Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan arautua.*

Honek esan nahi du, **64/2008 Dekretua argitaratu zenean (2008/04/15eko EHAA) indarrean zeuden 1. Hizkuntza-eskakizunak betiko izango direla, alegia ez direla iraungiko.**

Bestalde, jakin, badagoela aukera ziurtagiri horren behin betikotasuna eskatzeko HAEEeko web orriaren bidez. Helbide honetan dagoen tramitazioa egin behar duzu, eta horrez gain, administrazioeko kontratuak ere aurkeztu beharko dituzu, 2 urteko etenik egon ez dela ziurtatzeko.

[http://www.ivap.euskadi.net/r61-perfiles/eu/contenidos/informacion/hizkuntza\\_eskakizunak\\_webberria/eu\\_hizk\\_esk/ziurtagiriak.html](http://www.ivap.euskadi.net/r61-perfiles/eu/contenidos/informacion/hizkuntza_eskakizunak_webberria/eu_hizk_esk/ziurtagiriak.html)

**EUSKARA ETA ELEANIZTASUNEN ERREKTOREORDETZA**